

Joxean Muñoz Tabakalerako zuzendaria

Orain erabat sinesgarria da Tabakalera

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Diputazioak eta Donostiako Udalak sinatu berri duten akordioak Tabakalerari koherentzia ematen diola dio zuzendariak.

Ainara Gorostitzu. Donostia.

Herenegungoa erakundeen eguna izan zen. Gipuzkoako kultur politiketan aldaketa ekarriko duen akordioa aurkeztu zuten. Atzokoa Joxean Muñozen (Donostia, 1957) eguna zen; akordio horren garrantzia zehatz-mehatz azaldu nahi zuen, marrazki eta guzti. 2011n behin betiko lan taldea osatu nahi dute, 2013an irekitzeko Tabakalera. Denbora dute aurretik, eta lan handia.

Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Diputazioak eta Donostiako Udalak hitzarturiko oinarri eragileei buruzko akordioa ez al dator berandutxo?

Atzoko [herenegungo] ekitaldiak ez du ezer blokeatzen. Proiektua aurrera doa eta sektorearekin ari gara hizketan. Koherentzia gehiago ematen dio akordioak proiektuari. Guk abenduan proiektuaren plan operatibo bat aurkeztu genuen, baina inguruan genituen baliabideak ukitu gabe, ez baikenuen horretarako baimenik. Horrek eragozpenak sortzen zizkigun. Guk proiektua egin genuenean Artelekuren hainbat tasun hona ekarri nahi genituen; Artelekuk hona etortzeko aukera izan zezan egin dugu lan hasieratik. Filmategia hemen izatea hasieratik ikusi dugu oso ongarri, baina beti zuhur jokatu dugu, Filmoteka ez baita KGNG. Zinema unitatearekin harremanetan ari ginen, baina hori Udalarena zen... guztiarekin oso zuhur izan behar genuen, lankidetzaz artikulatzeko ez baikenuen baimenik. Atzo [herenegun] komunikatu zena da baliabide horiek guztiek Tabakaleran egoteaz gain Tabakalera egin behar dutela. Konpetentzia guztiak desegiten dira, baina ez besteak anulatzen direlako, egin behar dugun gauza berri horretarako orain arte garatu ditugun baliabide horietatik ezagutza, harremanak eta dinamika jaso behar ditugu, eta jende horrek hemen lanean jarraitu behar du.

Nola egiten da hori?

Bide zaila eginez. Oso estatutu diferenteko jendea etorriko da Artelekutik eta Koldo Mitxelenatik. Orain argitzen eta leuntzen joango den bidea da. Bide erraza? Ez. Lehenengo aldia da instituzioek elkarrekin lan hori egiten dutena. Horrek irekitzen duen panorama zaila eta berria da, baina hori bakarrik ikaragarritzko urratsa da. Orain esan liteke sinets daitekeela Tabakaleran. Jendeak sinetsiko zuen duela hilabete batzuk kultura bisualaren inguruko traste hau aurrera atera zitekeenik gero erakundeek dirua gastatu behar bazuten aparte Filmotekan, eta zinema unitatean, Artelekun eta KMK-n eta, gainera, Tabakaleran?

Akordioak nola eragiten dio abenduan aurkeztutako plan operatiboari?

Zintzilik utzi du akordioak plana, eta orain birformulatu egin behar da agente guztiekin. Hori positiboa da, batez ere, Tabakalera Euskal Herritik egin behar dela pentsatzen dugunontzat. Hemen egin diren gauzekin, eta hemen dabiltzan teknikariekin, industriekin harremanetan garatu behar dugu beraiei erantzun bideragarri bat emango dien proiektua. Hori aspaldi esana dugu, baina ez zegoen artikulatua, eta akordio honen eraginez erabaki dute bide horretatik jotzea.

Ikaragarritzko konpromisoa hartu dute, batez ere Diputazioak: anulatu egiten ditu Arteleku eta KMK, eta hori Tabakalerara doa, eta orain bai, erabat sinesgarria da Tabakalera, atera egingo da.

Proiektuan aldaketarik egon da? Akordioaren aurkezpenean kultura bisualaz bakarrik hitz egin zen, ez zientziaz edo gastronomiaz.

Zentratze lan bat egon da. Guk segitzen dugu pentsatzen gastronomia eta zientzia garrantzitsuak direla. Oso lan lerro garrantzitsuak dira zientziarena eta gastronomiarena -batez ere, zientziarena oso erronka funtsezkoa da-, baina lerro horiek ez dute definitzen Tabakalera. Tabakalera ez da dedikatuko zientzia egitera. Gurea ikusizko kultura da -arte, diseinua, soinua, telebista, zinema...- zientziak zerikusia du kultura bisualarekin zerikusia duen neurrian. Pentsamendu zientifikoa garatzen lagunduko dugu ikus-entzunezko eta artearen baliabideekin. Eta gastronomiarekin berdin. Erakundeek erabaki dute Sukal Leku izango dela gastronomiarako buru, gu Sukal Lekurekin ari gara lanean, eta guk eskain dezakeguna da lotura berezi bat artistekin eta sortzaileekin, ikus-entzunezkoekin eta jendearekin. Oraingoan stand by-n dago gastronomiarena.

Erakundeek adostasunera iristeko dituzten zailtasunek nola eragingo diete aldian aldiko erabakiei eta oro har Tabakaleraren funtzionamenduari?

Hiru erakunde eta bost alderdi politiko egotea hasieratik zailtasun bat da, baina ez da eragozpena, nahitanahiezkota da. Horrelako proiektu batek ezin du izan hutsik forala, hutsik munizipala edo hutsik Jaurlaritzarena. Ahalegina bateratua ez bada, ezin da horrelako proiektu batekin amets egin. Zailtasunak zailtasun, Tabakalerari dagokionean oso modu berrian ari dira kolaborazio lanean. Nik, benetan, ez nuen espero halako atrebentziarekin egingo zutenik pauso hori. Erakundeen arteko desadostasunek blokeatuko duten Tabakalera? Beldur hori beti egon da, baina erakundeek zailtasunak gainditzeko borondatea izan dute, eta akordio honekin borondate hori oso garbi gelditzen da. Blokeoa ez, zailtasunak egongo dira, kultura eta pentsaera desberdinak nahastuko direlako. Erraza izango zenik ez zigun inork esan. Hiru urte ditugu zailtasun horiek konpontzeko.

Horrek ez du inmobilismorik ekarriko?

Euskal Herria herri txiki-txiki bat izanik eta daukagun dispartzio territorialarekin eta datorkigun aro digitalaren marearekin ezin dugu harreman politikoaren gazi-gozoei begira egon, jendea hori ez zaio axola, jendeak erabili egin nahi ditu dauzkan baliabideak, udalarena, diputazioarena edo Jaurlaritzarena izan baliabide hori.

Abentura fuertea izango da, jauzi handi bat izango dela sinesten dugunontzat, erakundeen indar metaketa hau beharrezkoa zen, bestela indar ahultze bat dator. Munduaren aurrean existitu ahal izateko beharrezkoa da indarrak metatzea, bost alderdi politiko eta hiru erakunde dauden administrazio kontseilu bat dispartsiotan ibili beharrean liskarrak beste gauza batzuetarako utzi eta dena partekatzea historikoa da, oso inportantea.

Arteleku eta KMK ezeztatu egingo direla esan duzu. Autonomia hori galdu egingo da, izaera hori galdu egingo da?

Hemen biltzen badira, denon artean salto kualitatibo bat emateko izango da. Diputazioak esaten du Artelekuk eta KMK-ko aretoak, orain arte autonomoak izan direnek, unitate bat osatzen dutela Diputazioaren barruan, eta unitate hori pasako da Tabakalerara. Artelekuk egin duen bidea asko interesatzen zaigu. Arteleku momentu kritikoa harrapatu dugu, aldaketa momentu batean. Artelekurekin beti egon gara harremanetan, orain elkarrekin gaude abentura honetan. Artelekuk fabrika bezala funtzionatu badu, hemen baliabide gehiago

izango ditu. Hemen artista jendea egongo da, baina aldamenean izango dituzte telebista komertziala egiten dutenak, zinema egiten dutenak, diseinua egiten dutenak... artistaren aislamentua hautsi egiten da

Eta Koldo Mitxelena kulturunea?

KMK erreferentzia da Donostian artea interesatzen zaigunontzat. Erakusketak oso interesgarriak egin dituzte baina zabalkundea ez dute izan merezi adinakoa. Hemen bisibilitate handiagoa izango dute. Guk hemen erakusketak egin behar ditugu, gure erakusketak pentsatzeko orduan KMK-k garatu duen bide hori gure mahaian pentsatzen edukitzea onerako da.

Praktikan, Artelekuren izaera eta KMK-ren izaera hemen nork gestionatuko du? Tabakalerako zuzendaritzak, ala orain artekoek?

Hori orain landu behar da. Barruko taldea ahalik eta urriena izaten ahaleginduko gara gu, kanpoko jendearekin ahalik eta lan gehiena egiteko. Proiektuak ez dira antolaketa departamentalaren arabera garatuko. Artelekutik eta KMK-tik etorriko dira ibilbide eta estatus laboral batekin, haien egitura juridikoak nola uztartu planteatu behar dugu orain. Tabakalerak zuzenduko ditu, hemen daudelako, baina Tabakalera ez naiz ni.

Baina lehen esaten zeniguten Arteleku edo KMKz gain zerbait berria izango genuela Tabakalerarekin. Eta orain horiek ere ez ditugu izango...

Irudiaren inguruko zentro batez hitz egitean, bagenekien festibala hemen zegoela, festibal txikiak daudela, zinema fantastikoa dagoela, Arteleku, KMK... ez ginen ari ezer berririk esaten. Daukagun dispertsio horretan eta bakoitzak dauzkan indar mugatu horietan ez dago nahikoa indarrik eta bateratasunik, modu transbersalagoan hasi behar dugu lanean.

Tabakaleran, leku bakar batean, erakusketak egingo dira, eta eztabaidak eta formazioa... Hori da guk ekarriko dugun berritasuna: ez da ez zegoena ekartzea, dauden gauzak beste modu batean metatzea eta bilatzea eta egituratzea da gure berrikuntza. Berritasun maila ez da hautsi, orain aukera gehiago dauzka Tabakalerak benetan egia izan dadin. Guk eskainitako lanabesekin jendea nobedadeak sortzeko gai den neurrian izango da berrikuntza Tabakalera. Ingurura begiratu eta, zer falta da Donostian? Lan egiteko toki eta baliabideak; festibalak badaude, erakusketak egiten dira.... hori dena uztartuko duen leku bat behar da.

Hemen dauden gauzak bateratzea berrikuntza da, baina zer gehiago eskainiko duzue?

Testuingurua aldatuko da: ez zegoen eta ez dago gure inguruan arteaz kezkatzen den leku bat baita ere, ikus-entzunezkoez kezkatuko dena, eta industria gertu izango duena. Zergatik bizi behar dute helbide eta erakunde desberdinetan artean daudenak, eta zineman daudenak; telebistan eta soinuaren inguruan dabilzanak? Horrek badu zentzurik? Hori bukatutako garai bat da, aislamentu hori ez da egiazkoa, jendea beste modu batera bizi da. Interesak asetzeko Donostiako auzo batetik bestera joan beharrik ez da izango.

Aniztasunak bere aberastasuna ere badu, ezta?

Nik uste dut aniztasuna ezinbestekoa dela.

Dispertsioak izan dezake aberastasunik?

Izan dezake. Baina momentu honetan, alde batetik Filmoteka edukitzea, beste alde batean telebista, telebistako artxiboak ez daude Filmotekan, zinema unitatea izatea beste leku batean, artistak beren lanak egitea aparte, han beste erakustareto bat... nik uste dut horrek ez daukala batere interesik. Artelekuren kasuan, Santik [Eraso] beti transmititu du aldirietan egotearen garrantzia, baina

ze galduko lukete aldirietatik zentrorra etorrita? 26.000 metro dauden leku batean, eta hainbeste aktibitate dagoen leku batean, ez du esan nahi denak daukela zentralidadea, bisibilitatea eta horri eskatzen zaion presioa. Tabakalera hiri bezala pentsatuta, auzo batzuetan lasaiago ibili ahal izango da, etekin inmediatekoa ateratzeko presiorik gabe. Presio ekonomikorik eta denborakorik ez zaie jarri behar zenbait proiekturi, eta horretarako negutegiak eskainiko ditu Tabakalerak. Beste leku batzuetan presio handiagoa izango da.

Dispertsiotik zentralizaziora jo duzue denborarekin?

Hasieratik, ni proiektuan sartu aurretik, zegoen definitua irudiaren inguruko zentroa izan behar zuela. Oso modu dispertsoan zegoen diseinatua dena. Ordoñez Falcon izango zen erakusketak egiten zituen, eskola bat ekarri eta hemen jarriko zen, Filmoteka, museo bat ikus-entzunezkoen inguruan, Biblioteka... fragmentazio hori hausten joan gara. Momentu honetan esan liteke askoz koherenteagoa dela, horregatik gelditu zen COFF kanpora, guk izan behar dugu gure politika propioa erakusketa egiteko orduan. Orain erabat koherentea da proiektua.

Euskadiko Liburutegia hemendik ateratzea onuragarria izango da, ezta?

Guretzat onuragarria da koherentzia irabazten duelako proiektuak. Euskadiko Liburutegiak beste funtzio eta zeregin batzuk ditu. Aro digitalari erantzuten dion neurrian guri Liburutegitik oso gertu egotea interesatzen zaigu, baina ondareari dagokionez, ez zeukan gurekiko lotura zuzenik. Hori KM-n egoteak gurea begiaren ingurukoa dela zehazten du. Artzain Onaren plazan gelditzen da liburuaren inguruan ondo zentratutako gunea, eta zubia pasa eta hemen dago leku bat begiaren inguruan ondo zentratua.

Orain, ordea, 5.000 metro koadro horiek bete beharko dituzue?

Beste modu batera definitu beharko da espazioa. Gure mediateka digitalak zer lotura izan dezake inguruko zerbitzu bibliotekarioekin? Hori aztertu behar dugu orain. Teknologiaren eta ekonomiaren eragina sekula ez bezalakoa da. Kultura lehen kontsumotik eta produktotik aparte zegoen mundu bat zen, orain gero eta gehiago kontsumo eta produkzio kulturarekin lotuta daude. Kapitalismoak gero eta interes handiago du kulturarekin. Horrek bentajak eta arriskuak ditu, kultura bihurtzea kontsumo kontu huts bat. Kontsumo huts bat baldin bada, ez dago zertan sorturik, dena egin emango dizute, beti leku beretik. Hemen dagoen erronka da beste herriok ere sortzaile izan behar dugula, kontsumitzaile izateaz gain. Eta kontsumoaren kontzeptua aldatu behar da, kultura ez delako kontsumitzea bakarrik. Behin eta berriz definitzen joan beharko dugu kultura zer den. Kultura egin egin behar da, eta kulturak norbera egiten du. Hori nola reinbentatzen dugu XXI. mendean, eta hemendik, gure faktore bereziek funtziona dezaten horren barruan? Hori da erronka.

Hurrengo pausoak zein izango dira?

Lan asmo bat egin behar dugu orain sortzen diren galdera eta auzi horiek bideratu ahal izateko. Erantzun organizatiboak, ekonomikoak, juridikoak... eman beharko ditugu, eta gero, plan operatiboa aztertu beharko da. Eta hori kontseiluak aprobatu behar du. Horrez gain, Liburutegiari eskainia zegoen espazioari ze erabilpen eman behar zaion aztertu behar da, proiektuan berdefinizio batzuk egin behar dira, uda baino lehen. Uda aurretik arkitekturako konkurtsoa aterako litzateke, bestela 2013rako ez ginateke iritsiko.